

**“HEMEN GAUDE” ESPAZIO BERRIAREN INAUGURAZIOA**
INAUGURACIÓN DEL NUEVO ESPACIO “HEMEN GAUDE”

2019-06-02 Arkaute 02-06-2019

Lehendakariaren hitzaldia – Discurso del Lehendakari

Segurtasun Sailburu andrea, Legebiltzar buru andrea, Ertzaintzaren zuzendari eta arduradunok, ASERFAVITE-ren kideok, Legebiltzar buru andrearekin batera etorritako goi ordezkari guztiak, herri ordezkariak, herri agintariak, eta gaur bereziki, familia kideok, eta ekitaldi hau entzuten edo ikusten ari zareten guztiok, egun on.

Ongi etorriak ARKAUTE-ra eta “HEMEN GAUDE” espazio berri honetara.

Gaur, urtero bezala, zerbitzua eskaintzen hildako Ertzainak omentzen ditugu eta zerbitzu nabarmenengatik dominak ere emango ditugu. Gaur ere, honekin batera, “HEMEN GAUDE” espazioa irekitzen dugu. “Hemen gaude” ETA-k hildako Ertzainak betirako oroitzeko lekua da.

“Hemen gaude” banan banan ahaztuko ez ditugun Ertzainak omentzeko:

- Alfonso Mentxaka Lejona
- Luis Hortelano García
- José María Aguirre Larraona
- Ana Isabel Arostegi Legarreta
- Javier Mijangos Martínez de Bujo
- Genaro García de Andoain Larrinaga
- Joseba Goikoetxea Asla
- Iñaki Totorika Vega
- Carlos Díaz Arcocha
- Ramón Doral Trabadelo
- Iñaki Mendiluce Etxeberri
- Mikel Uribe Aurkia
- José Juan Pacheco Cano
- José Luis González Villanueva
- Jorge Díez Elorza.

Permítanme reiterar el sentido de las palabras que manifesté en el acto que gracias a ASERFAVITE, a la Dirección de la Academia, a la Dirección de la Ertzaintza, y al Departamento de Seguridad tuvimos ocasión de llevar a efecto el pasado miércoles con todas las familias en un encuentro privado e íntimo. Hoy reitero por lo tanto las palabras que trasladé.

Citar cada nombre nos recuerda algunos de los momentos más dolorosos e injustos que hemos vivido en este País. Nos recuerdan lo que nunca debe volver a repetirse y, sobre todo, nos recuerdan lo que nunca debió ocurrir.

Izen bakoitzak Herri honetan bizi izandako une mingarri eta bidegabeenetako batzuk gogoratzen dizkigu. Erahildako bakoitza da gizarte honen azalean ezabatu ezin den orbain bat. Gogorarazten digute inoiz errepikatu ezin dena eta, batez ere, gogorarazten digute inoiz gertatu behar ez zena.

Agradecemos a todas y todos los familiares la participación en la creación de este espacio de recuerdo y homenaje. Agradecemos también vuestro testimonio.

Nos permite recordar a personas que amaban la vida y a sus familias. Personas entregadas a su vocación de servicio público, que dieron la vida defendiendo a la institución de la Ertzaintza y a nuestro País. Vuestra presencia y testimonio nos ponen en contacto con lo mejor de la condición humana. Ofrecéis un testimonio de vida y de autenticidad. Una voz frente al sinsentido del terrorismo y una afirmación de rebeldía frente al olvido.

Eskerrik asko zuen presentzia eta parte hartzeagatik. Zuen testigantzek harremanetan jartzen gaituzte giza izaeraren onenarekin. Gogora datozkigu bizitza eta beraien familiak maite zituzten pertsonak. Gizatasunez betetako pertsonak, Herri hau defendatzeko bizitza eman zuten pertsonak.

Lehendakaria naizen aldetik bi sentimendu hauek partekatzen ditut zuekin: Lehenengoa, ezerk ez zuen izan zuen senideen bizitzak baino balio handiagorik. Erabateko bidegabekeria izan zen haien erahilketa. Bigarrena, zuen senideak gogora ekartzea gure memoriaren ohoragarriena da. Leku hau memoriaren eta oroimenaren gunea izango da betirako.

Cada persona que visite este Museo, cada persona que conozca este espacio “Hemen Gaude” y escuche vuestro testimonio sentirá una profunda tristeza por la injusticia cometida. Nada tuvo nunca más valor que la vida de vuestros familiares. Su asesinato fue una injusticia radical e injustificable.

Cada persona que conozca este espacio experimentará un sincero sentimiento de solidaridad hacia las familias de cada víctima. Aquí, el recuerdo de vuestros familiares representa lo más honorable de nuestra memoria.

“Hemen Gaude” será un espacio de memoria y recuerdo para siempre.

Agradecemos desde lo más profundo de nuestros corazones vuestra presencia y participación. Sois un ejemplo para la sociedad vasca.

También son un ejemplo los Ertzainas fallecidos en servicio a quienes vamos a recordar y homenajear en este acto. Así como los Ertzainas que van a recibir el reconocimiento y la felicitación del distintivo al mérito policial. Y este sentido adelanto que hago más las palabras que, a continuación, dirigirá la Consejera de Seguridad en la segunda parte del acto.

Eskerrik asko!